



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako

Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



AURKIBIDEA • ÍNDICE

Sarrera / <i>Introducción</i>	2
Elikadura Osasuntsua / <i>Alimentación Saludable</i>	3-4
Bertakoa eta Kalitatezkoa / <i>Autóctono y de Calidad</i>	5-6
Nekazaritzako Elikagai Ekologikoak / <i>Alimentos de Agricultura Ecológica</i>	7-8
Idiazabal Gazta / <i>Queso Idiazabal</i>	9-10
Arabako Errioxako Ardoa / <i>Vino de Rioja Alavesa</i>	11-12
Getariako Txakolina / <i>Txakoli de Getaria</i>	13-14
Bizkaiko Txakolina / <i>Txakoli de Bizkaia</i>	15-16
Arabako Txakolina / <i>Txakoli de Álava</i>	17-18
Euskal Okela / <i>Carne de Vacuno del País Vasco</i>	19-20
Euskal Baserriko Oilaskoa / <i>Pollo de Caserío Vasco</i>	21-22
Euskal Esne Bildotsa / <i>Cordero Lechal del País Vasco</i>	23-24
Hegaluzea eta Hegalaburra / <i>Bonito del Norte y Atún rojo</i>	25-26
Euskal Baserriko Arrautza / <i>Huevo de Caserío Vasco</i>	27-28
Euskal Esnea / <i>Leche del País Vasco</i>	29-30
Eztia / <i>Miel</i>	31-32
Arabako Patata / <i>Patata de Álava</i>	33-34
Gernikako Piperra / <i>Pimientos de Gernika</i>	35-36
Euskal Tomatea / <i>Tomate del País Vasco</i>	37-38
Ibarrako Piparrak / <i>Guindillas de Ibarra</i>	39-40
Euskal Babarrunak / <i>Alubias del País Vasco</i>	41-42
Euskal Baserri / <i>Euskal Baserri</i>	43-44
Jakiak Kontserban / <i>Productos en Conserva</i>	45-46

EGILEA / *AUTOR*: D'ELIKATUZ Elikadura eta Gastronomía Gunea / *Centro de la Alimentación y la Gastronomía*

MAKETAZIOA / *MAQUETACIÓN*: Eukene Lekuona

ARGAZKIAK / *FOTOS*:

Kalitatea Fundazioaren artxiboa / *Archivo de la Fundación Kalitatea*
D'elikatuz Zentroa

IMPRIMATZEA / *IMPRESIÓN*: Gráficas Ulzama

LEGE GORDAILUA / *DEPÓSITO LEGAL*: NA-2673/2008



SARRERA

Esan beharrik ez dago egungo gure gizartean elikadura eta osasunak duen garrantzia. Osasun eta bizi kalitate maila egokia izaten laguntzen digu eta funtsezkoa gertatzen da gaixotasun garrantzitsuen prebentzioan.

Bide honetan, gure Euskal Herriko lur eta itsasoak baliabide natural bikainak eskaintzen dizkigute. Horrela izan da belaunaldiz belaunaldi. Egun ere jaki eta edari bikainak ekoizten, eraldatzen eta lantzen dira gure lurraldean. Produktu hauen ekoizpen egokia bermatzea, kalitate bikaina mantentzea eta modu egokian gure ohiko elikaduraren parte egitea dira egun eta etorkizunera begira dauzkagun erronkarik nagusienetarikoa.

Horretan lagundu nahi dute jatorri izendapenek eta kalitate ziurtagiriek. Horretan dihardute Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ardurapean teknologia berriak jakien kalitatearen zerbitzura jartzten dituzten NEIKER eta AZTI bezalako ikerketa zentroek edota kalitatezko jakiak sustatu, bermatu, garatu, balioan jarri eta beraien segurtasunaz arduratzen diren Kalitatea eta Elika moduko fundazioek.

Argitalpen honen bidez kalitaterik oneneko euskal jaki eta edariak zure eskura jarri nahi ditugu, zeintzuk diren ezagutzen lagundu eta zure elikadura osasuntsuagoa izan dadin ohiko elikaduraren parte nola osa dezaketen iradoki.

Badugu beraz aukerarik bertako eta kalitatezko jaki eta edariak geureganatuz osasuntsu elikatzeke. Are gehiago bertako produktuak kontsumitzeak gure kultura, landa ingurunean, baserrietan, gizartean eta ekonomian duen eragin positiboa kontutan hartzen badugu.

INTRODUCCIÓN

La alimentación y la salud son algunas de las principales preocupaciones de nuestra sociedad. Una buena y adecuada alimentación además de ayudarnos a mantener nuestra salud, mejora nuestra calidad de vida y resulta fundamental en la prevención de múltiples enfermedades.

De generación en generación la tierra y el mar del País Vasco nos han ofrecido magníficos recursos en esta tarea de procurar una buena alimentación. Y así sigue siendo hoy en día. Nuestro mar, nuestros caseríos y nuestro medio rural siguen produciendo y transformando alimentos y bebidas de calidad superior. Posibilitar su adecuada producción, garantizar la máxima calidad y hacer que formen parte de nuestra alimentación cotidiana son algunos de nuestros principales retos.

A ello quieren colaborar las denominaciones de origen y los distintivos de calidad. En ello trabajan varias entidades impulsadas por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco, centros de investigación como NEIKER y AZTI que ponen las nuevas tecnologías al servicio de la calidad alimentaria, o fundaciones como Kalitatea o Elika que impulsan, garantizan, ponen en valor y controlan la calidad de los alimentos y su seguridad.

Por medio de esta publicación queremos poner a tu disposición los productos de mayor calidad del País Vasco, ayudarte a identificar cuales son y sugerirte como pueden formar parte de tu alimentación cotidiana para que ésta sea mejor y más saludable.

Con los alimentos autóctonos y de calidad que tenemos a nuestro alcance no sólo es posible esto sino que contribuiremos a mantener y mejorar nuestra cultura, nuestro medio ambiente y medio rural, a hacer más sostenible nuestra sociedad e impulsar nuestra economía.



ELIKADURA OSASUNTSUA



Elikadura osasuntsuak gure gorputzak behar duena ematean datza, hau da, egoki funtzionatzeko beharrezko dituen elikagaiak (karbohidratoak, koipeak, proteinak, bitaminak, mineralak, zuntza eta ura) bere neurrian ematean hain zuzen ere.


Elikagai hauek jakietan proportzio ezberdinetan aurkitzen ditugu, horrexegatik, jakin behar dugu jaki talde bakoitzetik zenbat eta zein neurrian jan behar dugun gure gorputzaren elikagai beharrak egoki asetzeko eta osasuntsu elikatzeko. Elikadura piramidea tresna pedagogiko bikaina dugu lan horretan.


Elikadura piramidearen oinarrian ditugun jakiak dira gehien eta maizen jan behar ditugunak, gora igotzen goazen heinean aurkitzen ditugun produktuak gutxiago jan behar ditugularik eta puntakoak aldiz noizean behin eta neurritz besterik ez.

La alimentación saludable consiste en dar a nuestro organismo aquello que necesita, es decir en poner a su disposición y en su justa medida los nutrientes que necesita para su correcto funcionamiento (hidratos de carbono, grasas, proteínas, vitaminas, minerales, fibra y agua).


No obstante, debido a que estos nutrientes los encontramos en diferentes proporciones en los diversos alimentos es necesario saber la cantidad y medida a consumir de cada grupo de alimentos para satisfacer nuestras necesidades y alimentarnos de modo saludable. La pirámide alimentaria es una magnífica herramienta pedagógica en esta tarea.

De este modo los alimentos que encontramos en la base son los que en mayor medida y con mayor frecuencia debemos consumir, a medida que escalamos en la pirámide la cantidad y frecuencia de consumo disminuye, hasta encontramos con los alimentos de la punta cuyo consumo debe ser ocasional y moderado.



 **Ardoa/garagardoa**
Helduek bakarrik
Hautazkoa eta neurrian
 Vino/cerveza - Sólo adultos
 Opcional y en su medida

 **Egunero jarduera fisiko arina**
 Diariamente actividad física ligera

 **1,5 - 2 l ur egunean**
 1,5 - 2 l de agua al día

ALIMENTACIÓN SALUDABLE

Jaki taldeak Grupos de alimentos	Gomendaturiko maiztasuna Frecuencia recomendada	Anoa pisua (gordinik eta garbi) Peso de cada ración (en crudo y neto)	Etxeko neurriak Medidas caseras
Ogia, laboreak, labore osoak, arroza, pasta, patatak <i>Pan, cereales, cereales integrales, arroz, pasta, patatas</i>	4-6 anoa/egun (posible bada labore osoak) 4-6 raciones/día (aumentar formas integrales)	40-60 g ogi 60-80 pasta, arroz 150-200 g patata 40-60 g pan 60-80 g de pasta, arroz 150-200 g patatas	Ogi zati bat (3-4 hatz)/ogitxo bat Platerkada normal bat Patata handi bat edo 2 txiki <i>Una rebanada (3-4 dedos)/un panecillo</i> 1 plato normal 1 patata grande o dos pequeñas
Esne eta esnekiak <i>Leche y derivados</i>	2-4 anoa/egun 2-4 raciones/día	200-250 ml esne 200-250 g jogurt, 40-60 g gazta ondu 80-125 g gazta fresko 200-250 ml leche 200-250 g yogur, 40-60 g queso curado 80-125 g queso fresco	Esne basokada bat 2 jogurt, 2-3 gazta-xerrada Gaztatxo zati bat 1 vaso/taza de leche 2 unidades de yogur, 2-3 lonchas de queso 1 porción individual
Barazkiak <i>Verduras y hortalizas</i>	2 anoa/egun gutxienez Al menos 2 raciones/día	150-200 g	Entsalada nahasi platerkada bat Barazki egosi platerkada bat Tomate handi bat, 2 azenario 1 plato de ensalada variada 1 plato de verdura cocida 1 tomate grande, 2 zanahorias
Fruta <i>Fruitas</i>	3 anoa/egun gutxienez Al menos 3 raciones/día	120-200 g	Fruta pieza normal bat Gerezi, marrubi... kizarakada bat 2 meloi xerra 1 pieza mediana 1 taza de cerezas, fresas, ... 2 rodajas de melón
Oliba olioa <i>Aceite de oliva</i>	3-6 anoa/egun 3-6 raciones/día	10 ml	Zopa koilarakada bat 1 cucharada sopera
Lekariak <i>Legumbres</i>	2-4 anoa/aste 2-4 raciones/semana	60-80 g	Platerkada normal bat 1 plato normal individual
Fruitu lehorrak <i>Fruitas secas</i>	3-7 anoa/aste 3-7 raciones/semana	20-30 g	Eskukada bat 1 puñado o ración individual
Arrain eta itsaskiak <i>Pescados y mariscos</i>	3-4 anoa/aste 3-4 raciones/semana	125-150 g	Xerra bat 1 filete individual
Haragi gihartsu eta hegaztiak <i>Carnes magras, aves</i>	3-4 anoa/aste. Txandakatuta 3-4 raciones/semana. Alternar su consumo	100-125 g	Xerra txiki bat Oilasko laurdena, untxi laurdena 1 filete pequeño 1 cuarto de pollo, 1 cuarto de conejo
Arrautzak <i>Huevos</i>	3-4 anoa/aste 3-4 raciones/semana	Erdi tamainakoak (53-63 g)	1-2 arrautza 1-2 huevos
Hestebete eta haragi koipetsuak / Embutidos y carnes grasas		Noizbehinka eta neurrian / Ocasional y moderado	
Gozo, litxarrerria eta freskagarriak / Dulces, chucherías, refrescos		Noizbehinka eta neurrian / Ocasional y moderado	
Margarina, gurina, opilak / Margarina, mantequilla, bollería		Noizbehinka eta neurrian / Ocasional y moderado	
Edandako ura <i>Agua de bebida</i>	4-8 anoa/egun (1,5 l) 4-8 raciones/día (1,5 l)	200 ml	Basokada bat, botilatxo bat 1 vaso o botellita
Ardoa / Garagardoa <i>Vino / Cerveza</i>	Aukeran, neurrian eta helduentzat soilik Consumo opcional y moderado solo adultos	Ardoa: 100 ml, Garagardoa: 200 ml Vino: 100 ml, Cerveza: 200 ml	Basokada bat, kaina bat 1 vaso, 1 caña o copa
Jarduera fisikoa <i>Actividad física</i>	Egunero Diaria	Gutxienez 30 minutuko jarduera fisiko arina (oinetz ibili, eskailerak igo, paseatu, bizitza aktiboa izan...) / Al menos 30 minutos de actividad moderada (desplazarse andando, subir escaleras, pasear, llevar una vida activa...)	



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



BERTAKOA ETA KALITATEZKOA



Euskal Herriko lur eta itsasoak, belaunaldiz belaunaldi hauek lantzeko transmituriko ezagutzari lotuta, primerako produktuak ematen dizkigute, modu egokian eta osasuntsu elikatu ahal izateko goi mailako jaki eta edariak.

Mendeetako lanaren fruitua eta jakintza biltzen dituzten produktuak ditugu gure artean, gure lur eta itsasoak antzinatek eman dituztenak edota gure lurraldera bikain egokitu direnak.

Gure nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ezagutzak, mimoz zainduriko ekoizpenak eta produktu hauen etengabeko hobekuntza eta kontrolak egun ere primerako elikagai hauek gozatzeko parada eskaintzen digute eta beraiekin kalitatezko elikadura osasuntsu bat aurrera eramateko aukera.

Jaki eta edari hauek gure lur eta paisaiaren, gure jakintza eta egitearen fruitu ditugu, baina era berean hauek gaurkotzen eta mantentzen laguntzen digute, gure ingurua zaintzen eta errespetuz lantzeko gure ezagutza eguneratzen.

Bertako produktuak ekoiztu eta kontsumitzeak gure elikaduraren jabe egiten gaitu, landa eremuak, baserriak, paisaia eta ingurua mantentzen eta garatzen laguntzen digu, gure nekazaritza, elikadura eta ekonomia jasangarriago egiten du.

Beraz, bertako eta kalitatezko jaki eta edariak, ongi eta osasuntsu elikatzen lagundu eta gure ahoak gozatzeko gain, gure herriaren ondare bihurtu zaizkigu. Produktu hauek ekoizten eta kontsumitzen jarraitzea ondare hau gorde eta jarraipen ematea da.

AUTÓCTONO Y DE CALIDAD

La tierra y el mar del País Vasco, unido a la sabiduría para trabajarlos transmitida de generación en generación, nos ofrece productos de primera calidad, alimentos y bebidas de máxima calidad que nos permiten alimentarnos de modo adecuado y saludable.

Tenemos entre nosotros productos fruto del trabajo y la sabiduría de siglos, productos que desde antaño nos ofrece nuestra tierra o que han sabido adaptarse a la perfección.

El conocimiento de nuestros agricultores, ganaderos y pescadores, una cuidadísima producción y la continua mejora y control de los productos nos ofrece también hoy día la posibilidad de disfrutar de estos alimentos y poder cuidar con ellos nuestra alimentación.

Estos productos además de ser el resultado de nuestra tierra, de nuestro paisaje, de nuestra sabiduría y de nuestro saber hacer, también nos ayudan a mantenerlos y actualizarlos, a respetar nuestro medio y a saber trabajarlos con el mayor respeto.

La producción y el consumo de productos autóctonos nos hace dueños de nuestra alimentación, nos ayuda a mantener el medio rural, nuestros caseríos, el paisaje, el medio y hace que nuestra agricultura, nuestra alimentación y nuestra economía sean más sostenibles.

Es así que los alimentos autóctonos y de calidad, además de participar en una alimentación saludable y servirnos de disfrute para el paladar, se han convertido en patrimonio de nuestra tierra. Contribuir a su producción y su consumo es revalorizar este tesoro y asegurar su continuidad.



NEKAZARITZAKO ELIKAGAI EKOLOGIKOAK

konpromisoa naturarekin,
osasunarekin, biziarekin



Biologikoa, ekologikoa, biodinamikoa eta organikoa izendapenak legez babestuta eta araututa daude eta izendapen bakoitzak bere legedia propioa du.

Izendapen horiek nekazaritzako produktu edo elikagaietara mugatzen dira.

Ezaugarriak

- Nekazaritza ekologikoa Kontsumitzaileari kalitate-maila egokia ziurtatu nahi dio.
- Jakien jatorria eta benetakotasuna ziurtatu nahi die kontsumitzaileei.
- Lurraren emankortasuna zaintzen du. Bide batez, bioaniztasunaren mantenua bultzatzen du.
- Ez da sintesiko produktu kimikoen erabilera onartzen.
- Abeltzaintza ekologikoa lurrari lotuta dago eta produkzio-mota estensiboa da eta bereziki animalien ongizatea zaintzen du.
- Abereen elikadura ekologikoa da eta botiken erabilera murriztu egiten da.
- Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoen produkzio sistema jasangarriak bultzatzen dituzte. Autosufizientzia eta energia aurrezpena dituzte helburutzat.
- Jaki ekologikoen berezko egitura orekatua gordetzen dute, Manipulazio Genetikorik eza ziurtatuz.
- Elikagai biziak dira, osasuntsuak.

Identifikazioa

- Produktu hauek NEKAZARITZA EKOLOGIKOA adierazten duen etiketaren bidez ezagutzen dira.
- Etiketa honek, produktu horrek ekoizpen ekologikoaren arautegia bete duela bermatzen du.



ALIMENTOS DE AGRICULTURA ECOLÓGICA

compromiso con la naturaleza,
con la salud y con la vida



El empleo de los términos **Biológico, ecológico, biodinámico u orgánico** está regulado por ley y reservado a los productos agrarios y alimenticios certificados bajo la normativa vigente.

Características

- La agricultura ecológica quiere certificar un nivel de calidad adecuado al consumidor.
- Quiere certificar al consumidor el origen del producto.
- Mima la fertilidad del suelo, promueve la biodiversidad.
- No emplea productos químicos de síntesis.
- La ganadería ecológica está ligada a la tierra, tiene un enfoque extensivo, se basa en una alimentación ecológica, sobre todo de la propia explotación.
- Restringe la utilización de medicamentos y pone especial atención al bienestar animal.
- La agricultura y ganadería ecológicas promueven sistemas de producción perdurables, buscando la autosuficiencia y el ahorro energético.
- Los alimentos de agricultura ecológica conservan su composición equilibrada propia y son los únicos que pueden garantizar la ausencia de Organismos Manipulados Genéticamente.
- Son alimentos vivos, saludables.

Identificación

- Un producto de la agricultura ecológica se reconoce por la etiqueta "AGRICULTURA ECOLÓGICA".
- Esta etiqueta certifica el cumplimiento de las normas de producción ecológica.

AZOKAK

Hainbat herrian azoka bereziak egiten dira urtean zehar mota honetako elikagaiak erakutsi eta saltzeko. Alegria-Dulantzi, Gasteiz, Loiu, Busturia, Mungia, Tolosa, Zarautz, Zerain eta Aretxabaletak Nekazaritzako Elikagai Ekologikoen azoka bereziak ospatzen dituzte.



FERIAS

En muchas localidades se celebran ferias especiales durante el año para dar a conocer y poner a la venta este tipo de productos. Alegria-Dulantzi, Gasteiz, Loiu, Busturia, Mungia, Tolosa, Zarautz, Zerain y Aretxabaleta acogen ferias especiales de Alimentos de Agricultura Ecológica.



IDIAZABAL GAZTA



Idiazabal gazta oso antzinatik ekoizten da Euskal Herrian.

Hainbat sari eta aipamen merezi izan ditu horien artean aipagarriena, Europako 15 produktu onenen artean Idiazabal Gazta sartu izana.



Jatorria

- Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroan ekoizten da.



Ezaugarriak

- Latxa eta karrantzar ardien esne gordinarekin egindako gazta da.
- Animaliarengandik lortutako gatzagia erabiltzen da egiterakoan.
- Kilo bat gazta egiteko ia 7 litro esne behar dira.
- Gazta ondua da, gutxienez 2 hilabetetan ontzen egona.
- Ketuta edo ketu gabe eskaintzen da eta kasu bakoitzean ondutako esnearen, gatzagiaren eta kearen zapora sendoa izango du.
- Nahiz eta ekoizpena mugatua izan, miloi bat kilo baino gehixeago, Idiazabal gaztak lehentasunezko postua du estatuan Babestutako Jatorrizko Izendapena duten gazten artean.

Balio nutritiboak


- Gazta gantz azidoetan aberatsa da.
- Proteina-iturri garrantzitsua da.
- Gaztak duen azukre nagusia laktosa da. Kontzentrazio handian agertzen da, nahiz eta ondutako gaztetan, Idiazabal Gaztan kasu, azido laktiko edo laktatoan bihurtu portzentaia handi bat.
- Bitamina eta mineralen ere aberatsa da, bereziki kaltzio eta fosforotan.

Identifikazioa


- Jatorrizko Izendapenaren bermearekin Idiazabal jartzen duen zerrenda gorria izan behar du etiketan.
- Kalitatearen kontrol handiagoa lortzeko, zenbaki bar darama gazta bakoitzak azpialdeko azalean.

Gomendaturiko kontsumoa

- Egunean esne eta esnekien 2 anostatik 4 ra. Idiazabal gaztaren kasuan 2-3 gazta xerradak anoa bat osatzen dute.



QUESO IDIAZABAL



El queso Idiazabal se elabora desde antaño en el País Vasco.

Ha sido merecedor de multitud de premios y distinciones, entre ellos del calificativo Producto Patrimonio Culinario Europeo.

■ Origen

- Se produce en el País Vasco y Navarra (Excepto la zona del Valle del Roncal).

■ Características

- El queso se elabora con leche cruda de ovejas latxas o carranzanas.
- Para cuajar la leche se utiliza el cuajo obtenido del animal.
- Para la elaboración de un kilo de queso se necesitan 7 litros de leche.
- Es un queso curado, con una maduración mínima de 2 meses.
- Se presenta ahumado y sin ahumar y según el caso, posee un penetrante sabor a leche madurada, cuajo y humo que lo hace exquisito al paladar.
- A pesar de su producción limitada, algo más de un millón de kilos, la comercialización del queso de Denominación de Origen Idiazabal, ocupa un lugar privilegiado en el sector de quesos con denominación de origen protegida en el Estado.

■ Valor nutritivo


- El queso es rico en ácidos grasos.
- Es una fuente importante de proteínas.
- El tipo de azúcar que predomina en el queso es la lactosa. Aparece en grandes cantidades, aunque en los quesos curados, así como el caso del Queso Idiazabal, un porcentaje elevado se convierte en ácido láctico o lactato.
- Es rico en minerales y vitaminas, especialmente en calcio y fósforo.

■ Identificación

- Un queso con la denominación de origen Idiazabal incluye en la etiqueta una banda roja.
- Para un mejor control de calidad llevan la corteza numerada en su base.

■ Consumo recomendado

- 2 a 4 raciones al día de leche y derivados. En el caso del Queso Idiazabal cada ración equivale a 2-3 lonchas.



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



ARABAKO ERRIOXAKO ARDOA



Arabako Errioxa izendapena Errioxako Jatorrizko Izendapenaren azpizendapena da.

Nortasun eta izaera propioa dituen ardoa da osagai natural jakinez egiten delako: mahastiak batetik eta bertako mahastizain eta ardogileen lan egiteko era bestetik, ardo hau berezia egiten dute.

Europako Jatorrizko Izendapen prestigiosuenetakoa da 75 urte baino gehiagoko antzinatasunarekin.



Jatorria

- Arabako Errioxa (Araba)



Ezaugarriak

- Urteko ardoa, Ardo ondua, Erreserba eta Erreserba Handiko ardoak etiketatzen dira.
- Eskualdeko baldintza agronomikoek egiten dute ardo hau hain berezia: klima mediterraniar eta atlantiarraren mugan, beraz bien eraginpean hazten dira mahastiak.
- Errioxako Ardoaren izenean saltzen diren ardoen herenak Arabako Errioxakoak dira.
- Ekoizpenaren % 30a atzerrian saltzen da.
- Europako kalitate goreneko ardoen artean dago Frantziako ardoekin batera.

Balio nutritiboak


- Bere neurrian kontsumituz gero ez da kaltegarria, alderantziz, osasunarentzat onuragarri gerta daiteke (2 edalontzitxo egunean).
- Taninoak eta beste hainbat sustantzia interesgarri ditu.

Identifikazioa

- Etiketetan edo/eta kapsuletan inprimatutako "RIOJA ALAVESA" aipamenaren bidez nabarmentzen da.

Gomendaturiko kontsumoa

- Aukeran, neurrian eta helduentzat soilik. Basokada 1 edo 2 edalontzitxo egunean.



VINO DE RIOJA ALAVESA



Rioja Alavesa es una subdenominación dentro de la D. O. Calificada Rioja, que produce vinos con carácter y personalidad propia debido a sus elementos naturales diferenciados: los viñedos y el saber hacer de los vinicultores y bodegueros.

Es una de las Denominaciones de Origen más prestigiosas de Europa, con una antigüedad de más de 75 años.

Origen

- Rioja Alavesa (Alava)

Características

- Se etiquetan los siguientes tipos de vino: joven del año, Crianza, Reserva y Gran Reserva.
- Las condiciones agronómicas de la comarca son privilegiadas para el cultivo del buen vino. Posee un microclima especial, ubicado en la frontera entre el clima mediterráneo y atlántico, con influencia de ambos.
- Una de cada tres botellas de la "Denominación Rioja" pertenece a Rioja Alavesa.
- El 30% de la producción se dirige a la exportación.
- Es la referencia, junto a los vinos franceses, del segmento vitivinícola de alta calidad europea.

Valor nutritivo


- Consumido con moderación no resulta perjudicial, incluso puede resultar beneficioso para la salud (2 vasitos al día).
- También contiene taninos y algunas otras sustancias de interés.

Identificación

- Los vinos de Rioja Alavesa se reconocen con la indicación "Rioja Alavesa" impresa en las etiquetas y/o cápsulas.

Consumo recomendado

- Consumo opcional y moderado, sólo para adultos. 1 vaso o 2 vasitos al día.



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



GETARIAKO TXAKOLINA

Getariako Txakolina
DENOMINACIÓN DE ORIGEN



Getariako Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen kontrolpean dago jatorrizko izendapen hau.

Jatorria

- Getaria, Zarautz eta Aia arteko mahastietatik jasotako mahatsarekin egiten da nagusiki, nahiz eta azkenaldian Gipuzkoa osora zabaldu.



Ezaugarriak

- Gipuzkoan ekoiztutako ardo gaztea da. Bi mahats barietate nahastuz lortzen da ardo hau: Hondarribi Zuri barietatea (% 85-90) eta Hondarribi Beltza (%10-15) barietatea.
- Ardo zuria, gaztea eta frutatsua da. Azidotasunak bereizten du eta 10,5 gradu inguru izaten ditu.
- Kolore horixka du eta fruta usaina.
- Zerbitzerakoan aparra ateratzea komeni da, gasarekin batera usainak askatu ditzan.
- Bi miloi inguru botila merkaturatzen dira.

Balio nutritiboak


- Txakolina ardo gaztea da eta ardoari buruz idatzitakoak txakolinarentzat balio du.

Identifikazioa


- Getariako Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen kontrola gainditu dituzten txakolinek bakarrik lortuko duten BJI horren berme-zigilua.
- Kapsularen azpian darama Kontseilu Arautzailearen zenbakidun berme-zigilua uztaren urtea adieraziz.
- Rhin erako botilan merkaturatzen da.

Gomendaturiko kontsumoa

- Aukeran, neurrian eta helduentzat soilik. Basokada 1 edo 2 edalontzitxo egunean.



TXAKOLI DE GETARIA



Este Txakoli está bajo el control del Consejo Regulador de la Denominación de Origen Protegida de Getariako Txakolina.

Origen

- Se elabora fundamentalmente con la uva recogida de los viñedos de los alrededores de Getaria, Zarautz y Aia, habiéndose ampliado recientemente a toda Gipuzkoa.

Características

- Es un vino joven producido en Gipuzkoa con dos variedades de uva: Hondarribi Zuri, que supone 85-90% de la producción, Hondarribi Beltza 10-15% restante.
- Es un vino blanco, joven y afrutado. De grado medio 10,5 y de una leve acidez característica.
- Tiene un color amarillo pajizo y aromas frutales.
- A la hora de servir conviene romperlo en la copa, de manera que desprenda, junto con pequeñas agujas de carbónico, toda la gama de sus aromas varietales.
- Se comercializan alrededor de dos millones de botellas.

Valor nutritivo

- El Txakoli es un vino joven, por lo cual lo escrito para el vino también sirve para el txakoli.

Identificación

- Solo llevarán el precinto de garantía los txakolis que hayan superado los controles del Consejo Regulador del Txakoli de Getaria.
- Debajo de la cápsula lleva un precinto de garantía numerado, con el año de la cosecha del propio Consejo Regulador.
- Se comercializa en botella tipo Rhin.

Consumo recomendado

- Consumo opcional y moderado, sólo para adultos. 1 vaso o 2 vasitos al día.



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



BIZKAIKO TXAKOLINA



Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen kontrolpean dago jatorrizko izendapen hau.



Bizkaiko Txakolina

Jatorria

- Bizkaia osoan barreiatuta dauden mahastietako mahatsarekin egindako txakolina da, baina Bakio eta Enkarterrietan daude handienak.



Ezaugarriak

- Bizkaiko herrietan hazitako mahatsen hartzidura kontrolatuaren bidez modu naturalean egindako ardoa da.
- Mahastiak hegora begira egon ohi dira eta kostaldetik hurbil.
- Ardo gaztea, arina, lurrintsua eta apar arinekoa da.
- Ahoan suabea eta fruta-gustukoa gertatzen da, garratzasun ukitu batekin.
- Kolore distiratsua eta gardena du. Zabaldueña zuria da eta ondoren gorria edo oilar begia. 10,5 eta 11 gradu inguru izaten ditu.
- Miloi bat botila inguru merkaturatzen dira.

Balio nutritiboak


- Txakolina ardo gaztea da eta ardoari buruz idatzitakoak txakolinarentzat balio du.

Identifikazioa

- Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen kontrola gainditu dituzten txakolinek bakarrik lortuko duten BJI horren berme-zigilua.
- Kontseilu Arautzailearen zenbakidun berme-etiketa daramate atze aldean botila guztiek.

Gomendaturiko kontsumoa

- Aukeran, neurrian eta helduentzat soilik. Basokada 1 edo 2 edalontzitxo egunean.



TXAKOLI DE BIZKAIA



Este Txakoli está bajo el control del Consejo Regulador de la Denominación de Origen Protegida del Bizkaiko Txakolina.

■ Origen

- Es un txakoli realizado con uva de viñedos diseminados por toda Vizcaya, aunque destacan la comarca de Bakio y Las Encartaciones.

■ Características

- Es un vino de año producido de forma natural de la fermentación controlada de las uvas cultivadas en los términos municipales de Vizcaya.
- Sus viñedos están orientados al sur y próximos a la costa.
- Es un vino joven, ligero aromático y con una discreta aguja.
- A la boca resulta suave y afrutado, con sabor moderadamente ácido.
- Es de color brillante y transparente y posee un grado alcohólico entre los 10,5 y los 11 grados. El tipo más extendido es el blanco, seguido del rosado u ojo de gallo.
- Alcanza una producción de cerca de un millón de botellas.

■ Valor nutritivo

- El Txakoli es un vino joven, por lo cual lo escrito para el vino también sirve para el txakoli.

■ Identificación

- El txakoli, una vez superados todos los controles establecidos por el Consejo Regulador de Txakoli de Bizkaia, se embotella y se garantiza su autenticidad calidad.
- Se identifica con la contraetiqueta numerada y controlada que encontraremos detrás de cada botella.

■ Consumo recomendado

- Consumo opcional y moderado, sólo para adultos. 1 vaso o 2 vasitos al día.



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



ARABAKO TXAKOLINA



Jatorrizko izendapena 1997. urtean eskuratu zuen Arabako Txakolinak.



Jatorria

- Kantauri aldeko Arabako eskualdean, bereziki Amurrio, Aiara, Artziniega, Laudio eta Okondo udalerrietako mahastietako mahatsarekin ekoizten da.



Ezaugarriak

- Hondarribi Zuri barietateko mahatsarekin egiten da.
- Ardo gaztea eta lasto kolore horixkakoa da, distiratsua. Fruta-lurrin indartsua eta garratzasun orekatua ditu.
- Ahoan suabea eta arina gertatzen da.
- 200.000 botila inguru merkaturatzen dira.

Balio nutritibok


- Txakolina ardo gaztea da eta ardoari buruz idatzitakoak txakolinarentzat balio du.

Identifikazioa

- Arabako Txakolina markaren kontrol-etiketa daramate botila guztiek.

Gomendaturiko kontsumoa

- Aukeran, neurrian eta helduentzat soilik. Basokada 1 edo 2 edalontzitxo egunean.



TXAKOLI DE ALAVA



La Denominación de Origen Txakoli de Alava data de 1.997.

Origen

- La Comarca Cantábrica Alavesa, con los ayuntamientos de Amurrio, Ayala, Artziniega, Llodio y Okondo, constituye el marco geográfico donde se cultivan las vides.

Características

- Se realiza con la variedad autóctona Hondarribi Zuri.
- Es un vino joven de color amarillo paja, brillante y con intensos aromas frutales propios de su variedad, equilibrada acidez y marcada personalidad.
- Su paso por la boca es suave y ligero
- Alcanza una producción de alrededor de 200.000 botellas.

Valor nutritivo


- El Txakoli es un vino joven, por lo cual lo escrito para el vino también sirve para el txakoli.

Identificación

- Mediante la etiqueta de control de la marca Txakoli de Álava.

Consumo recomendado

- Consumo opcional y moderado, sólo para adultos. 1 vaso o 2 vasitos al día.



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



EUSKAL OKELA



Euskal Okela
Carne de Vacuno del País Vasco

Ezaugarriak

- Euskal Okela da Eusko Label ezaugarriarekin adierazitako abelgorri okela, Arautegi Teknikoak ezarritako jatorri, osasungarritasun eta kalitate baldintza guztiak betez.
- Euskal Okela Euskal Herriko baserrietan kontu handinez hazitako animalien okela da, hau da, beren bizitzako urrats guztietan kontrolaturik egoten diren eta baimendutako hiltegiatan beren kalitateagatik hautatutako abelgorrien okela.

Balio nutritiboa


- Haragia proteinetan aberatsa da (gutxi gorabehera haragiaren % 20 proteina dela estimatzen da).
- Hazkuntzarako, sistema immunologikorako eta ehunen berregituraketarako beharrezkoak diren bitaminak eta mineralak ere baditu: burdina, B₁₂ bitamina, zinka, iodoa, selenioa, fosforoa....

Identifikazioa


- Euskal Okela baimendutako harategietan soilik saltzen da. Harategi horiek oso erraz nabarmentzen dira Eusko Label ikurraren bidez.
- Harategi horietan, kontsumitzaileak, Euskal Okela erosten duen bakoitzean, etiketa eranskor bat jasotzen du balantza berezi batek emana, eragiketaren zehaztapen guztiak adieraziz eta Eusko Label ikurrarekin.

Gomendaturiko kontsumoa

- Astean haragi gihartsu eta hegazti haragiaren 3 anostatik 4ra. Euskal Okelaren kasuan 125g. inguruko xerra batek anoa bat osatzen du.



CARNE DE VACUNO DEL PAÍS VASCO



Características

- Euskal Okela es la carne de vacuno certificada con el símbolo Eusko Label, que cumple con todos los requisitos de origen, salubridad y calidad definidos en el Reglamento Técnico que los regula.
- Procede de animales nacidos y criados con especial cuidado en los caseríos del País Vasco, controlados en todas las fases de su vida y seleccionados por su calidad en los mataderos autorizados.

Valor nutritivo

- La carne es rica en proteínas (se estima que un 20% de la carne es proteína).
- También contiene vitaminas y minerales necesarios para el crecimiento, el sistema inmunológico y la regeneración de los tejidos: hierro, vitamina B₁₂, cinc, iodo, selenio, fósforo...

Identificación

- Euskal Okela se vende exclusivamente en carnicerías autorizadas fácilmente reconocibles por el símbolo Eusko Label.
- En ellas, el consumidor, cada vez que compra carne Euskal Okela, recibe una etiqueta adhesiva emitida por una balanza especial, con todos los datos de la operación y con el símbolo Eusko Label.

Consumo recomendado

- De 3 a 4 raciones de carnes magras y de ave a la semana. En el caso de Euskal Okela cada ración equivale a 1 filete de unos 125g..

Animaliak bizitza osoan eramaten duen kontrol zenbakia (*)

Nº de crotal que lleva el animal toda su vida (*)

Operazio-data

Fecha de operación

Ganadu mota

Tipo de ganado

Animaliaren arraza

Raza del animal

Erosketaren pisua

Peso de la compra

Non hazia den

Dónde ha sido criado

Non hil den

Dónde ha sido sacrificado

Non zatitua izan den

Dónde ha sido depiezado

Hilketa data

Fecha de sacrificio

Euskal Okelaren logotipoa, Eusko Label zigiluarekin

Logotipo de Euskal Okela, con sello de Eusko Label

Jaioterria: beti Euskadi

Lugar de nacimiento: siempre País Vasco

Operazio zk.

Nº de operación

Animaliaren pieza

Pieza del animal

Adina hilabeteetan

Edad en meses

Erosketaren zenbatekoa

Importe de la compra

Animaliaren sexua

Sexo del animal

Prezioa kiloko

Precio por kg.

Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



EUSKAL BASERRIKO OILASKOA



Euskal
Baserriko
Oilaskoa
Pollo de
Caserío Vasco

Ezaugarriak

- Libre hazitako Baserriko oilaskoak, antzinako eran hazitako oilaskoen zaporea du.
- Zerealez osaturiko elikadura naturalak, %60tik gora artoa, atlantiar motako eta hazkunde mantsoko arrazak, hiltzeko garaian duten gutxienezko 81 eguneko heldutasunak eta artisau erako ekoizpen sistemak erabat ziurtatzen dio kontsumitzaileari okela osasungarria, samurra eta zaporetsua; merkatuan aurkitu ohi denaren aldean oso ezberdina.

Balio nutritiboa


- Haragia proteinetan aberatsa da (gutxi gorabehera haragiaren % 20 proteina dela estimatzen da).
- Hazkuntzarako, sistema immunologikorako eta ehunen berregituraketarako beharrezkoak diren bitaminak eta mineralak ere baditu: burdina, B konplexuko bitaminak, zinka, iodoa, selenioa, fosforoa...
- Hegazti-haragia da lipido gutxien duen haragi-mota eta beraz giza-kontsumorako oso egokia da.

Identifikazioa

- Eusko Labela duen benetako Baserriko oilaskoa osorik edo zatika merkaturatzen da, eta beti Eusko Label zeinuarekin adierazten da.
- Oilasko osoetan etiketa baten bidez, eta zatien erretiluetan, berriz, zenbakidun etiketan.

Gomendaturiko kontsumoa

- Astean haragi gihartsu eta hegazti haragiaren 3 anostatik 4ra. Euskal Baserriko Oilaskoaren kasuan, laurden batek anoa bat osatzen du.



POLLO DE CASERÍO VASCO



■ Características

- El pollo de Caserío criado libre, tiene el sabor del pollo criado como antes.
- Su alimentación natural basada en cereales con más de un 60% de maíz, su raza de tipo atlántico y crecimiento lento, su madurez al sacrificio establecida en un mínimo de 81 días y un sistema de producción artesanal, garantizan al consumidor un carne sana, jugosa y sabrosa, muy diferente a lo que habitualmente se encuentra en el mercado.

■ Valor nutritivo

- La carne es rica en proteínas (se estima que un 20% de la carne es proteína).
- También contiene vitaminas y minerales necesarios para el crecimiento, el sistema inmunológico y la regeneración de los tejidos: hierro, vitamina B, cinc, iodo, selenio, fósforo...
- La carne de procedencia avícola es la que menos lípidos contiene y en consecuencia es muy adecuada para el consumo humano.

■ Identificación

- El auténtico pollo de Caserío con Eusko Label se comercializa entero o en despieces y siempre se identifica con el símbolo Eusko Label.
- En el pollo entero mediante una etiqueta en la pata o en el ala, y en las bandejas de despieces se localiza en la etiqueta numerada.

■ Consumo recomendado

- De 3 a 4 raciones de carnes magras y de ave a la semana. En el caso del Pollo de Caserío Vasco cada ración equivale a 1 cuarto de pollo.



EUSKAL ESNE- BILDOTSA



**Euskal Esne
Bildotsa**
Cordero Lechal
del País Vasco

Ezaugarriak

- Eusko Labela duen benetako esne bildotsa Euskal Herriko "Latxa" edo "karrantzar" arrazakoa da.
- Beren amaren esnearekin elikatzen da soilik.
- 3tik 5 aste bitartean dituen hiltzen da. Horri esker haragi samur eta ezin goxoagoa du.

Balio nutritiboa

- Haragia proteinetan aberatsa da (gutxi gorabehera haragiaren % 20 proteina dela estimatzen da).
- Hazkuntzarako, sistema immunologikorako eta ehunen berregituraketarako beharrezkoak diren bitaminak eta mineralak ere baditu: burdina, B₁₂ bitamina, zinka, iodoa, selenioa, fosforoa...

Identifikazioa


- Lau etiketa jartzen dira Euskal Esne bildotsaren laurdenetako bakoitzean, berme ziurtagiri gisa.

Gomendaturiko kontsumoa

- Astean haragi gihartsu eta hegazti haragiaren 3 anoatik 4ra. Euskal Esne Bildotsaren kasuan 125g. inguruko zati batek anoa bat osatzen du.



CORDERO LECHAL DEL PAÍS VASCO



■ Características

- El auténtico cordero lechal con Eusko Label, pertenece a las razas autóctonas del País Vasco latxa y carranzana.
- Es alimentado exclusivamente por la leche de su madre.
- Se sacrifica cuando tiene de 3 a 5 semanas, lo que da como resultado una carne jugosa, tierna y con un exquisito sabor.

■ Valor nutritivo

- La carne es rica en proteínas (se estima que un 20% de la carne es proteína).
- También contiene vitaminas y minerales necesarios para el crecimiento, el sistema inmunológico y la regeneración de los tejidos: hierro, vitamina B₁₂, cinc, iodo, selenio, fósforo...

■ Identificación

- 4 etiquetas con el símbolo de Eusko Label, uno en cada cuarto del cordero, son su certificado de garantía.

■ Consumo recomendado

- De 3 a 4 raciones de carnes magras y de ave a la semana. En el caso del Cordero Lechal del País Vasco cada ración equivale a 1 porción de unos 125 g.



Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ELIKADURA OSASUNTU baterako
Alimentos y bebidas de calidad del País Vasco para una ALIMENTACIÓN SALUDABLE



HEGALUZZEA ETA HEGALABURRA



Hegaluzea
eta
Hegalaburra
Bonito del Norte
y Atún Rojo



Ezaugarriak

- Eusko Labela duten Hegaluzea eta Hegalaburra kalitate goreneko arrainak dira; banan-banan harrapatzen dira, sarerik gabe, betiko arrantza-aparailuak erabiliz: kanabera bidezko arrantza (karnata bizia erabiliz) eta kazako edo xaxiango arrantza. Horrela, arrainen kalitatea hobea da; arrantza-tokien jasangarritasuna eta itsas baliabideen etorkizuna ere bermatzen dituzte.
